

ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEAREN

BERRI PAPERERA



AMAIA ZENTROA
Benito Perez Galdos Z/G
01002 Gasteiz
Araba
E.: araba@bertsozale.eus
T.: 945 01 05 05
www.bertsozale.eus/araba



TARANTULA FEST

8 gai jartzaileen tranpan 18 bertsolari gaixo. 7 epailek bertsolariak irensteko prest daude. Arabako bertsolari txapelketa hastear dago, 7 tarantulen gozamenerako.

Ja! Ze polita, sarea, bertso eskolak, denok elkarrekin... txapelketa koloretsua! Bai zera! Gupidarik gabeko 7 epaileen tranpa sarean erori dira 18 bertsolari. Inozoak!

Gainera, izena boluntarioki eman dute!! Azkarra den bakarra Ruben Sanchez! Bertsolariak epaileen puntuazioak onartu beharko dituzte. Gustatu ala ez, ados egon ala ez, onartu beharko dituzte. Punto! Hau horrelakoa da! (Sinatu duten arautegian jartzen du. Ja!)

Tarantulek beren harrapakinarekin-baino gupida gutxiago izango dute Arabako 7 epailek. Hankaluze, betelana, potoak, gehiegi pentsatzea,

gaizki kantatzea, ezer ez esatea... eta bertsozaleak aspertzen dituzten bertso guztiak zigortuko dituzte. Eta saritu... Saritu ez, askoz jota baleko.

Berdin zaie bertsotan 35 urte daraman bertsolari bat edo hasi berria den bertsolari pipiolo bat. Bertsolari jana! Denak irentsi! Oihana basatiaren legea da, inork ezin die aurre egin Arabako tarantulei!

Tarantula fest otsailaren 5ean hasiko da, Langraizen. Ondoren Zigoitia, Dulantzi, Legutio, Laudio eta Aramaio. Finala Gasteizen.

Jarraipena egiteko hemen:
www.bertsozale.eus/araba

KOPLA

Eskertu gura genizueke, presentzia nabarmendu, baina Izarren aupergi horrek gure partez esaten du!



Argitalpenaren
laguntzaileak



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

www.alava.net



DESENBARKOIA

Oihane Perea

EKAITZ ELORRIAGA Kapitainak jarri zuen lanean, hamaiketako dotore baten ostean, 2017ko urtarrilaren 21ean Aretako errepublikan bildu zen Arabako Bertsozale Elkarteko urteroko bilkura klandestino.

PATXI AIZPURUA idazkari jaunaren bibote elegantea izan zen bigarrena hitza hartzen. Ekonomikoki buruaski izan eta 2018-2019rako amets egiteko unea izango dela datorren urtea.

XABI IGOA komunikazioaren kortsarioak, ohiko dotoreziaz, euskarri grafikoak berri beharra aipatu zuen. Era berean, azken urtean elkarteko sare birtualetan jausitako

18.818 bisitariak gogoan izan zituen.

OIER SUAREZ sustapenaren geologiaz aritu zen: harriak mugi daitezzen egin beharreko lanaz. Txapelketa arrakastaz gauzatu, gazteak plazaratu eta Altxa Kopla horil, plaken tektonika irauli eta korrontek aldatzeko bidea izango omen dira.

JULEN ZULAIKAK gure bertso eskoletako baratze ekologikoetako egoera aztertu eta produkzioa handitzeko BERTSOA BIZI GAZTE ongarri natural berria martxan dagoela adierazi zigun.

JONPiratak, bilketako altxorrek zenbatu eta argi utzi zuen datorren urteko

abordaia nagusia: altxor-bilketan txukun jarraitu eta 2018ko kuadrilartekoa ondo kokatzea.

Eta amaitzeko, OLATZ PEREA altxorzain nagusiak, 2017an barkuak zulorik ez izateko egindako konponketen berri eman zuen. Gasteizko pirata txikiek egindako bideoklipaz amaitu zen batzarra irribarre eta txalo artean.

Aiaraldeko bertso-eskolako beteranoen eskifaia gidari tunelean murgildu ginen, belaunaldiz belaunaldi eta eskualdez eskualdeko amarauna josi eta argia ikusteko leku paregabea. Orain ametsak egi bihurtzen asteko garaia da. Abordatzera!

AIEBE argitu zenekoa

Uxue Diaz De Cerio

1982, Amurizak bigarren txapela helburu, Aiaraldeko hamar bat gizaseme inguru bertsoaren interesa pizturik, ostiralero biltzen hasi ziren, lehenik Udalak utzitako gela baten, gerora euskaldun jator bezala mahai inguruan, Tunel tabernako menu eta ardo goxoaren bueltan. Han hasi zuten hurrengo hamarkadan euren tradizio erlijioso bilakatuko zen bertso jarduna, hutsegite gabeko ostiralero bertso afaria, Tunela

bertsoaren santutegi. Horrela sortu zen Arabako lehen bertso eskola.

Betiko menu berbera, Tuneleko dekorazio berbera, mundua aldatuko luketen solasaldiak, tripakiak postrerako eta kantu jardunari ekiten zioten.

Jantokia leporaino, AEKko ikasle andana entzule, bertsolariak bertso gosez eta honela goizaldeko ordu txikitara aritzen ziren. Kantuan hauexek: Emilia-

no Diez, Txaber Errasti, Juan Mari Fernandez, Txema Alangua, Jon Pagoaga, Jesus Angel Santacruz, Karla Santisteban, Juanjo Respaldiza, Pedro Bizkar-guenaga, Peli Pagazaortundua, Jon Gerrero, Josu Aldama, Iñaki Mendiguren eta Serapio Lopez. 35 urte ondoren, urtarrilaren 21an, gehienak berriro elkartu ziren, mahai baten bueltan.

Bizitzaren paradoxak, Tunel tabernan argitu zen Arabako bertsolaritza!



Mendialdeko bertso-eskola

Non ote dago Mendialdea?

Jende askoren galdera izaten da. Askok eta askok ez dakite non gauden ere. Mendialdea, Arabako hego ekialdean kokatzen da, Nafarroa eta Errioxa ditugula mugan. Naturgune interesgarri eta herri txiki ugaz osatutako zonaldea da, eta bai, hemen ere bertso eskola daukagu.

2009an sortu zen, Maeztu herrian hain zuzen ere. Gure maisua Iñigo Eizagirre izan zen eta herri desberdinetatik etorritako ikasleek osatu genuen taldea. 2010ean Kanpezu herrira pasatu ginen bertso eskolarekin jarraitzeko asmotan eta gure irakaslea Julen Zulaika izanez gaur egun arte. Urte batzuetan zehar, umeen taldea ere izan dugu baina gaztetu zaizkigu eta orain gazteak eta nagusiok jarraitzen dugu. Martxan hasi ginenetik, 8 urte igaro dira! 8 urte bertso eskola abian!

Nork esango luke, 8 urte pasatu ondoren, bertso eskolak martxan jarraituko zuela?

Ikaragarria benetan! Baina hau ikaragarri bihurtzeko, bertso eskolako partaide guztiok proiektuan sinetsi dugulako izan da. Horrez gain gure herriak pairatzen dituen egoerak islatu dira gurean, horregatik talde bezala bertsoz eman dugu neurriko erantzuna. Urtetik urtera gero eta ekintza gehiagotan parte hartu izan dugu, eta nola ez, antolatu ere.

Hor dago 8 urtetako lanaren emaitza: Urtero bertso afariak egin ditugu Urbiso, Atauri, Antoñana, Maeztu, Korres, Kanpezu herriak lekukoak izan dira eta ahalik eta jende gehien parte hartuz. Mendialdeko euskara eguneko herrietako ekintzak indartzen eta bultzatzen saiatu gara gure harri puska jarriz: kontrasta, bernedo, kabredo, antoñanan.... urtero ere otsailan lurra astinduz eguna antolatu izan dugu, eguzkia zein elurra izan, kalera atera gara abestera herriz herri. Bertso poteoekin kuadrila arteko jaurdinaldietan kaleak girotu ditugu 4 alditan hartu dugu parte, gure



helburua parte hartzea modu umil batean beti izan da. Badakigu gure mailan ez dagoela inor, horregatik lasaitasunez eusten dugu, gehienetan mozoraturik lotsa kentzeko. Eta aurten.... ibilbide xume honetan egindako bertso sortak eta gurekin bertsoan aritu diren guztiak biltzeko nahian disko bat grabatzeari ekin diogu!

Disko honetan azken urteetako bertso bertsorik esanguratsuenak agertzen dira eta horretaz gain, Mendialdeko talde desberdinen abestiak ere: Lamingorriak emakume taldearena, ikastolako umearena, Gazte asanbladarena, XVII. Mendea Kultur

Elkartearena, Amezti Euskara Elkartearena, Euskara klaseetakoarena, Korresko gaztelukidearena, ta nola ez bertso eskolako kideenak. Diska honek Mendialdea osoa eta gure 8 urtetako lana irudikatzen.

Mendialdeko Bertso Eskola edo hobeto esanda bertsolagunak bertan sortzen diren euskararen aldeko ekintzetan parte hartzen jarraituko dugu gure neurrian, proiektu eta ideia berriak aurrera eramateko prest!

Hurrengo Berri Paperean Gasteizko Kakiturri bertso-eskolaren artikulua.

AGENDA!

Urtarrilak 27 ZALDUONDO	GAZTEEKIN SUTONDOKO BERTSO SAIOAK	Elkartea, 20:30 Unai Anda, Aitor Najera, Jon Ruiz de Pinedo, Markel Yoyer. Gai-jartzaileak: Aitana Iradier, Olaia Perez Antolatzailea: Arabako Bertsozale Elkarte
Otsailak 3 GASTEIZ	GAZTEEKIN SUTONDOKO BERTSO SAIOAK	Judizmendi Sumendi gaztetxea, 20:30 Peru Abarrategi, Jagoba Apaolaza, Aroa Arrizubieta, Egoitz Iradier. Gai-jartzailea: Lexuri Gonzalez de Heredia Antolatzailea: Arabako Bertsozale Elkarte
Otsailak 5 LANGRAITZ	ARABAKO BERTSOLARI TXAPELKETA	Gizarte Etxea, 17:30 Peru Abarrategi, Manex Agirre, Zigor Enbeita, Rikardo Gonzalez De Durana, Asier Rubio, Felipe Zelaieta Gai-emaileak: Marta Ugarte
Otsailak 5 AMURRIO	#aIFREEdo BERTSO SAIOA	Burubio aretoa, 19:00 Oihana Bartra, Onintza Enbeita, Unai Iturriaga, Izar Mendiguren, Oihane Perea, Iñaki Viñaspre Gai-jartzaileak: Unai Mendibil, Asier Rubio
Otsailak 10 ARAMAIO	GAZTEEKIN SUTONDOKO BERTSO SAIOAK	Marixeka, 20:30 Peru Amorrortu, Xabier Antia, Xabi Igoa. Gai-jartzaileak: Lexuri Gonzalez de Heredia Antolatzailea: Arabako Bertsozale Elkarte
Otsailak 12 ZIGOITIA	ARABAKO BERTSOLARI TXAPELKETA	Kultur Etxea, 17:30 Iker Agirre, Jagoba Apaolaza, Andere Arriolabengoa, Xabi Igoa, Serapio Lopez, Iñaki Viñaspre Gai-emaileak: Aintzane Irazusta
Otsailak 17 URIBARRI HARANA	GAZTEEKIN SUTONDOKO BERTSO SAIOAK	Taberna, 20:30 Maddalen Arrausi, Maria Fuentes, Asier Rubio, Julen Zulaika. Gai-jartzaileak: Aitana Iradier, Olaia Perez Antolatzailea: Arabako Bertsozale Elkarte
Otsailak 19 DULANTZI	ARABAKO BERTSOLARI TXAPELKETA	Kultur Etxea, 17:30 Paula Amilburu, Izar Mendiguren, Asier Otamendi, Oihane Perea, Jon Ruiz de Pinedo, Ander Solozabal Gai-emaileak: Lierni Altuna

ZERNAHI

ESAN DEZAGUN EGIA



Xabi Igoa

Txapelketaren aitzakian, argazkiko “majo” horiek omendu nahi izan genituen Arabako Bertsozale Elkartetik. Azkar irten zitzaion gure Bizkarri esaldi ponpoxo hura: Tunelean ikusi zuen argi arabar bertsolaritzak.

Mesedez...

Esan dezagun egia!

Mahairen alboetan dauedanak ez ziren bertsoagatik joaten Tunelera, mahaiaren erdiguneko zer inporta zitzaiena: jana eta edana.

Aurkezpenaren ondotik bertan geratu ginenok, argi ikusi genuen hori. Ardoa nahi beste, Oier Arbina asetzeko bezalako ratioak eta amaiera gabeko menu bat. Hauek bai jakin...

Bertsoaren aitzakian tripakada ederrak egingo zituzten gure “iluminatuek”.

Argi ibili...

